Berriatua aldetik, batez beste, industri geiago igarten da. Kontuegin, batez beste Ondarru aldeko errezihoak 2.430 peseta dirala eta Berriatua aldekoak 4.136. Zerbait erakusten dau orrek.

Es Frigoríficos Ondarreses quien encabeza el grupo de mayores contribuyentes con 65.100 ptas, seguido de Industrias Osam S.L. con 48.316.

Mientras en Ondarroa flotamos sobre las aguas, Berriatua nos lleva a tocar tierra. Por conceptos es el de coches el más numeroso:32.

SAGARDUARI AGURRA

Edan toki askotan agertzen zan len guretzako ezaguna zan agiritxo: "Ondarroa'ko sagardaua".

Berriatuarrak esaten ekien eurena zala ta guk, jakiña, gurea.

Dana dala, maste bakarreko balandraetan upel ugari sartzen ziran Kanttoipe' ko mollan, Bilbo alderako.

Gaur . . .

Begiratu kontribusioetako kontuetara.

1.926 urtean, orain 50 urte, ogetazortzi sagardau egille agertzen ziran gure errian, eta beste amazapi sagardaua saltzen eben toki.

Gaur, izena bera ez. Bat bakarrik ez sagardau izenez ordaindu dabenik. Berriatuarren artean be iñor ez.

Ondarroa' n, banakan batek, "errialdeko edari" izeneko zerga ordaintzen dau. Or eskutatzen ete da sagardau bitsa?

Berriatuarren artean, olakoxe batik be ez.

Izena bera galdu azkenean!

Besterik ezean, Ramon Artola-ren bertsoak gogoratu daiguzan.

ADIOS ALASIDRA

En muchos establecimientos de bebidas se veía con frecuencia el cartelito: "Sidra de Ondarroa".

Los de Berriatua nos echaban en cara que no era producto nuestro, sino de ellos.

De todos modos, en nuestros mejores tiempos, no era difícil comprobar la carga de grandes bocoyes de sidra en las gabarras que atracaban en Kanttoipe.

Hoy . . .

Una mirada a los conceptos contributivos de la villa, nos da a entender algo que presagiamos. En 1.926, hace 50 años, aparecían en las listas de la villa 28 fabricantes de sidra y 17 establecimientos de despacho de la misma.

Hoy ni siquiera el nombre. Aparece algún suelto pagando contribución por "bebidas del pai's", pero ninguno que concrete si tal bebida es sidra. Ni entre los de Berriatua.

Dice Busca Isusi que la sidra es bebida que acompaña magníficamente a los platos de pescado en especial a los de salsa verde. ¡Qué vamos a hacer! Como otras muchas cosas, nuestra sidra, la de Ondarroa, pasó a la historia. Ni siquiera nos queda el consuelo nostálgico de su nombre.

Recordemos unos sabrosos versos de Ramon Artola:

Bedeinkatua izan dadilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
eraten duben guziya;
erari onek gizon askori
ematen diyo biziya,
au eran gabe egotia da
neretzat penitentziya.

Gaitzik ez duben erari oni
gogoz oi diot nik ekin,
satisfazioz ez nai arkitzen
pitxar bat eta birekin;
iru edo lau izaten ditut
arratserako nerekin,
tristura eta penak sendatzen
ditut sagardoarekin.

ESTROPADAK - REGATAS

1.926 urteko Donosti'ko estropadak!

50 urte eta oraindik gogoan!

Ondarroa' ri, gure erriari, ikutu eta bultz eragiten dautsan kirolak jatorrena, estropada da.

Erriaren izena eta izana jarri eta erabilten dira estropadetan.

Origaitik, Donosti' ko garaitza-ren 50 urte betetzean, estropada gogoratzea bidezko da.

Txanda bitan jokatu zan lenengo domekan. Lau treñeru lenengo eta bigarrenean iru. Ondarroa eta Ondarrabi' k treñeru biña bialdu zitu.

Ara zelan gelditu zirean:

Regatas de 1.926.

50 años y aún las recordamos.

El deporte que más mueve y emociona a Ondarroa es el de las regatas de traineras.

En ellas se juega todo: el nombre y el ser del pueblo.

Por eso, en el cincuentenario del gran triunfo ondarrés en la concha donostiarra, es justo que lo jaleemos. Se jugó el primer domingo en dos tandas, con cuatro embarcaciones en la primera y tres en la segunda. Ondarroa y Fuenterrabia presentaron dos traineras.

He aquí la clasificación.

Izena Nombre	Erria Pueblo	Patroia Patrón	Denpora Tiempo inveni
1.-"Antiguako Ama 1"	Ondarroa	J.J. Beitia	19,32
2.— "Sanjuandarra"	Pasajes	F. Laboa	19,41 3/5
3.—"Ondarrabitarra"	Fuenterrabia	R. Aguirre	19,50 4/5
4.-"Donostiarra"	Donostia	Dgo Hoz.	19,53 4/5
5.-"Virgen del Mar"	Fuenterrabia	M. Goicoechea	19,57 2/5
6.-"Antiguako Ama 2"	Ondarroa	Balenciaga	20,24 1/5
7.-"Virgen de la Guia"	Portugalete	L. Gutierrez	20,53 2/5

Bigarren domekan, treñeruak aldatuta, onela gelditu ziran:

- 1.—"Sanjuandarra" Ondarroa
- 2.—"Antiguako Ama 1" Pasajes

Ori ikusita askok gogoratzen eben lenakoen bertsoa:

"Bandera jartzen zuten
ezkillak torrea,
inbenzible zirala
Kosta Kantabrian."

El domingo siguiente, con las traí-
neras cambiadas, se jugó la Regata
de Honor. He aquí el resultado:

- | | | |
|--------------|-------|-----|
| J.J. Beitia. | 21,03 | 4/5 |
| F.Laboa | 21,29 | 3/5 |

Tras esta victoria se volvieron a re-
cordar los viejos bersos:

"Poni'an la bandera
en la torre de la iglesia:
que eran invencibles
en la Costa Cantábrica."

ESTROPADETAKO BERTSO BERRIAK

Errietako gora berak jasoten dituen bertsolariak, ba dakiez estropada egunetan euren bertso onak agertzen. Akulari edo zirikalari, adar jotzalle edo ta benetan gozatzalle . . .


Erriak berak aginduta batsutan. Auzo erriak zirikatuta bestetan. Urteroko estropadak daukez auren bertso paperak. Ara, aidean, batsuk:

Urtea:

- 1.854.- Azkue'k batuak.
- 1.865.— Xenpelar'ek jarriak.
- 1.888.— Ondarru ta Pasayak jokatu aurrekoak. Diburtzio Urrosolo' k egiñak.
- 1.888.— Ondarru ta Pasayak jokatu ondorengoak.— "
- 1.890.— Ambrosio ta Karril.— Antonio Sagastume'k egiñak
- 1.890.— Ambrosio ta Karril.— Frantzisko Etxebarria' k.
- 1.898.— Ondarrutar arrantzale batek jarriak.
- 1.902.— Biba Manuel Beitia eta beraren kuadrilla.
- 1.902.— Juan Bta Urkia Portu, "Gaztelu" k jarriak. Ondarrutarren aurka.
- 1.916.— Asmo onak, gertaera txarrak . . .
- 1.916.- "Txirritak" jarriak.
- 1.919.- A. Eleizalde 'k jarriak.
- 1.921.— Juan Jose Sarasola'k jarriak.
- 1.922.- P. Zabala'k jarriak.
- 1.923.— Gora Oriyotarrak . . .
- 1.923.— Oriyotarren alde . . .
- 1.925.- "Gaztelu" k jarriak.
- 1.925.— Portugalete' ko estropadak. Burgoa' k jarriak.
- 1.926.— Kalandíko Erregiñe Dienesi.—Jose Brontxe'k.
- 1.926.— Bertso berriak, Jose Brontxe' k jarriak.
- 1.926.— Ondarrutarrenak.
- 1.926.— Beti ezagun . . . Burgoa' k jarriak.
- 1.926.— Milla bederatzireun . . . Burgoa'k.
- 1.926.— Bertso berriak, Domingo Gorra'k jarriak.
- 1.926.— Ondarrutarren alde . . .
- 1.926.- Mendaro Txirristaka' ka jarriak . . .
- 1.926.— Ondarrutar batek jarriak . . .

Orrelaxe, urte bakoitzean, estropada egin ondoren, erri bateko nai beste-ko irabazlea izan, ainbat bertso txorta agertzen dira. Eta nai ta bertakoak sartu edo jokatu ez, ba dira ainbat ondarrutarrek gogoratzen dituenak.

Gaur, azken aitatu doguzanak agertuko doguz, au da, "Ondarrutar batek" jarriak.



1
Hand
Pencil

1.926 ko estropadak. - "Ondarrutar batek" járriak.

- 1.— Milla bederatzireun ogeta seian
Agorrillaren bostian
bost erritatik zazpi treñeru
Kontxara batu zirian,
Donosti, Fuenterrabia, Pasai, 0
laurak batera asi zian
baiña aurretik ondarrutarra
balizara sartuzian.
- Zeru urcjiña, itxaso leuna
eguzki ederrarekin,
leor, itxaso poztu ginduzen
oju ta txaloarekin,
Juan Bautista Beitia
zetozen jertz gorriakin
eta mutillak be bildur zian
ondarrutar oriekin.
- 3.— Jertz gorridunak aurretik datoz
zer pasatzen da mutillak,
ondarrutarrak Kontxa orretan
sartu ditu banderillak,
genioz oiek onak dira ta
errespetua umillak,
dirade mutil balientiak
ta arraunian abillak.
- Bizkai aldetik auzoik urrena
pozikan Asterrikara,
bolanderia ugari dabe
ederragua patxada,
baldin atzetik ondarrutarra
baliza etortzen ba da,
uste etzuten zezen gorriak
sartu diote adarra.
- 5.— Erri orretan zanzarradia
eta ujuak ugari,
or ibiltzeko ze pasaten dan
pregunta nion bateri,
j gure poza da oiek galtzia
orain estropada ori,
destaña asko bota diote
oiek ondarrutarrari.
- 6.— Ez bota guri destañarikan,
libre Kontxara bidia,
ara juanda andik ekarri
zuek Bizkaira ondria,
amabi milla peseta eta
sedazkua banderia,
nik dudatzen zuek juan eta
andikan ekarritzia.
- Ondarrutarrak etorri dira
gabarrarekin Kontxara,
au guria da esan zuan da
txapela bota urtara,
Donostiarra usuarekin
laugarren gelditua da,
orreri ere zezen gorriak
sartu diote adarra.
- 8.— Gabarra orrek bear duala
soka, erremolkerako,
kaia gañian esan ziguten
ori estropadarako,
usuak danak atzetik dira
gabarra balizarako,
gabarra ori bezela ez dira
uso oriek portako.

- 9.— Diruak baño pena andiago
bandera ona ekartia,
Donosti orta gelditua da
tristura andiz jentia,
sekula ez bezela bandera orrek
puntan du matrikulia,
esanaz beti guria degu
aurtengo estropadia.
- 10.— Illan amabin jokatu zuten
Pasai ta Ondarruk berriro,
orrak nik esan papel onetan
zer esan zuten garbiri,
gure treñeruak irabazia
kuadrillak ez du balio,
gure mutillak etorri ziran
baliente ta serio.
- 11.— Errege jaunak agindu zien
mutil oyeri yatia,
preciso zala Fakundasunen
Ondarrura ekartia,
txupiñaso ta musika ederra
millaka bolanderia,
ikusgarria zan orduko oien
porturako sarrerria.
- 12.— Sei estropada urte betian
oyek dituzte irabazi,
leziorik asko eman dute
nai baldin ba da ikasi,
ogeita zortzi urte geldi egonda
orrek dauka ze ikusi,
ondarrutarrak danen aurretik
beti dijuaz igesi.
- 13.— Oriotarrak ibili dira
atzera eta aurrera
gure mutillak ikusi eta
paladak kontatutzera,
emendik pozik joanak ziran
gogor trabesak eitera,
baña ederto ustu zaizkate
beteta zeukaten kartera.
- 14.— Durangotikan Orfeoi ederra
Debatikan musikia,
Mutrikotíkan etorri zaigu
tanborrada elegantia,
oien aurretik jendia ba zen
kale guztiak betia,
eskerrak milla Jaunak danoi
onekin despedidia.

AIMTIGUA KO AMAREN IBILLALDIAK

Ez sarri, baiña gizaldi bakoitzean bi irutan ekarri izan da errira Antigua' ko Amaren irudia.

Premiñen bategaitik edo eskerrak emoteko. Beti be erriko gora-bera andien baten. Olakoetan gure erriak ikutu berezi batartzen eban, goitik beerrako arrada, erri osoari biotza jo eta taupadaka erabilten ekian zerbait.

Ekarrera orreik erri osua alkartuten eben, maitasun baten berotu eta baretu, nai ta aurrez itsukeriz edo txikikeriz bananduta ezagutu.

Gizaldi onen barruan, gure gizaldiaren urteetan, iru ekarrera andi ezagutzen dira, bata bestea baiño gogoangarriagoak: 1.904, 1.931 eta 1.949 urtetan.

1.904 urtekoa, banakak gogoratzen dabe ikusita. Entzutez askok. Bertsolari baten bertsoetatik jarraituko dogu bera, nai eta bertsolaria sermoigile jator lez bertsoetan aritik urten eta bere pentsakeretan galdu.

Jose iVlaniel Imaz bertsolariak egindako bertsoak dira. Irakurri:

Milla bederatzireun
gañera lau urte,
pelegrinazio bat
disponitu dute.
Agostu ogeta
lau señalemente,
Ondarrura etorri da
makiña bat jente,
Ama Antiguakua
bisitatu dute.

3.- Plazan paratu zuten
beretzat lekua,
lozez apaindurikan
altara santua,
Fray Bartel jaunarentzat
berriz kurpitua,
erriko prinzipalak
zan disponitua.
Biba Ondarroako
Ayuntamentua.

Antiguako eleizatik
plazara ekarri,
bere guardian ba zan
jendia ugari,
musika ta aingeru
bandera ta guzi,
aurretikan apaizak
guztien nagusi,
alabantzak ematen
Ama Birgiñari.

4.- Bandera ta lujauak
balkoi bentanetan,
arku ederrak berriz
kale kantoietan,
arbola ostroakin
arraunak e bertan,
lora txuri txuriz
ia tapaturikan,
zenbat kristau pasada
oien azpitikan.

- 5.— Fray Bartel jaunarekin
gaudez arrituak,
negar eragin digu
aren predikuak,
Amari erreguka
altzaurik eskuak,
klaro esplikatatu ditu
fedeko kontuak,
zeñi ez dio erten
begitik malkuak?
- 6.— Sermoi au egin zuan
Ondarruko plazan,
zortzi milla arima
gutxienez ba zan,
Fray Bartel jaun orretzek
kontu asko esan,
Jesukristoren dotriña
irakurria zan,
kanta dezagun orain
bere alabantzan.
- 7.— Probintziatik jente
asko etorrita,
Bizkaitatik geiago
ala komentita,
Birgiña Amarengana
biotzak poztuta,
ainbeste milla kristau
danak auzpeztuta,
Imagiña adorutzen
belaunikatuta.
- 8.— Bizkaian ba zeguan
jaun onen bearra,
Jesusen dotriñari
emateko indarra,
Bikario jauna ere
ez degu ain txarra,
edadian aurrera
bastante da zarra,
sermoia predikatzen
txit gizon azkarra.
- 9.— Engañaturik gabiltz
munduko guztiak,
erlegiñua galtzen
persona gaiztuak,
Jesusek gugatikan
emandako pausuak,
manifestuan orra
eleiza santuak,
bizi geran artian
atera kontuak.
- 10.— Jesusen pausuetan
akordatzen gera,
guregatik zer moduz
ibilli zan bera,
ikusi nai ba degu
begira kurutzera,
ultziakin josirik
esku oñetara,
etsaiak jarri zuten
modu orretara.

11.— Arantzazko koroia
etsaiak sartuta
buru guztia dauka
dana zulatuta,
lepotik dariola
odola tantuka,
ain zitala izanik
gure pekatua,
kurutzean illa da
danon Jaungoikua.

12.— Nai ba deguz arimak
zeruraño jaso,
sekulako desterra
pekatua oso,
Luziferren galdara
berua da oso,
infernuko etsaiari
zertan egin kaso,
Jesukriston bandera
egin allimoso.

13.— Ama Antiguakua
biotzez garbiak,
arrigarriak dira
orren mirariak,
zuzendu bear gaitu
zure mesediak,
Aita san Pedro iriki
zeruko atiak,
gloria goratzeko
arima tristiak.

14.— Agoniako trantze
etorri ezkerro,
luzaro bizitzerik
ez degu espero,
izerdi tantuakin
gorputzetik bero,
azkenengo arnasak
iges egin gero,
Jesusen sententzia
etorriko zaio.

15.— Ama Antiguakua
orain erremata,
agonian aurrena
eriotza da ta,
gure defensoria
imagiña da ta,
laguntzalliak ere
makiña bat santua,
bertan sartutzeko
alabantzak emanda.

1.931 ko JAIK

Antiguako eleizatxoa dotoretzea pentsatu zan 1.930 urtean. Torre barria egin, kamariña txukundu eta abar.

Lan orreik egiñagaz batera, Antigua' ko Amaren irudia bere toki barrian sartu aurretik, errira ekartea pentsatu zan.

Dagonilla' ren (Abustuaren) 6' an ekarri, bederatziurren ospatsu bat parrokiaren ondoren bere tokira jaso.

Bai erriak asmo ori biotz onez eta maitekiro onartu be.

Andre Mari egunaren bezperan egin zan ibillaldi nausia. Ordurako kaleak zearo apainduta egozan. Erri guztia zan bertan. Gora eta otoitzak, zapiak eta agurrak, negarrak eta eskerrak bat eginda, nastean entzun edo ikusten ziran, ezagutu be ezin ala apainduta eta txukunduta egozan kaleetatik zear, erri guztitik zear, irudia erabili zanean.

Biamamonean, plazan egin zan meza eskeintza.

Kaletako gora-berak izentatzea komeni litzake. Ba dago gogoragarri bat, itzik barik, beste berba guztiak baiño geiago adieraziko dabena. Ondoren izentatzen diran arkoen erreskada eta izenak, nai ta ez erakusten dabe zelan agertu zan gure erria egun orretan, gure erriko kaleetan zer ikusi zeinkean. Berrogeta amairu arku, gurea lako erri txiki baten, beste apaindura guztiak ixillan lagata be, naiku dira egun aren edertasuna erakusteko eta gogoratze-ko.

53 arku zenbatu genduzan danetara.

Euretatik berrogei ta bi euskerazko esan-naiekin. Lau erderaz, gastele-raz, bi latinez eta beste bost irakurgai gabe.

Kalez kale joanda, onela zabaldu ziran arku orreik, euren esakerekin:

Ipar-kalean.

- 1.— Iparkaletarrak Antiguako Amari.
Agur.
- 2.— Iparkaletarrak laztan gozo bat Antiguako Amari.
- 3.— Iparkaletarren biotzak zeuk daruazuz, Ama.
- 4.— Geure itxaropena zeu zara.
- 5.— (Izen barik)

Antiguako Ama Neskutsaren kalean.

- 6.- Ave Maria.
- 7.- Agur danon Amari.

- 8.— Ongi etorria zerala Ama Antiguakua. Agur.
- 9.— Madre Amada de la Antigua, no nos niegues tu favor.
- 10.— Bienvenida seas Madre.

Ensanche kalean

- 11.— Agur Antiguako Ama errukitsua,
artu gure biotzak ta gure gogua.
- 12.— Onetzija zeu emakumien artian.
- 13.— Demuéstranos que eres Madre.
- 14.— Bendícenos María.
- 15.— Ama Antiguakua errukitu zaitez gugaz.
- 16.— Goizeko izarra gustiz da ederra,
baña ederrago zure sorrera.
- 17.— Ama, errukia gugaz, gure biotzak artu egizuz.

Nasa kalia. Mollan.

- 18.— Bikañena eta garbiena, gure amarik onena.
- 19.— Goraldua izan bedi danoen Ama.
- 20.— Zeuriak izan gura dogu, Ama.
- 21.— (Esaera barik)
- 22.— Garbi zaindu gaizuz, Ama.
- 23.— Ongi etorria arrantzalien Ama.
- 24.— (Esaera barik)

Ibarra kalia. Erriberan.

- 25.— Ondo igaro Ama kale onetatik.
- 26.— Onetsi.
(Kale onetan, balkoitik balkoira ten egiñaz, ba egozan
ainbat apaindura eta arku ezelako izen barik)

Iñaki deunaren kalia. (San Iñaxio kalia)

- 27.— Ama, Agur. Betoz zorionean.
- 28.— San Ignacio kaletarren biotzak zeurekin daruazuz, Ama.
- 29.— Emengo auzuak, Ama kutunari. Zorionak.
- 30.— Antiguako Amari, agur.

Kale andian.

- 31.— (Esaera barik)
- 32.— Ama, salbau gaizuz.
- 33.— (Esaera barik)
- 34.— Agur Miren, eskarrez betia
zaindu eguizu zure erri maitea.
- 35.— Ama errukitsua, on eta ederra,
artu gagixuz danok zure magalpean.
- 36.— Agur Antiguako Ama, agur gure izarra,
agur gure poz eta zaindari bakarra.
- 37.— "Kalandiko" umiak, anai arrebatxuak, ez juañ iñora,
Amatxo datorkigu gaur geu poztutzero.
- 38.— Ama dontzuba, Ama altzuba, Ama errukitsuba,
argitu eguizu erri itzuba.
- 39.— Ama Maria, geuri dauzkuzun amoriuagaitik
zatoz geugana. Ondo etorria.
- 40.— Ama. Ez dago munduan atsegin aundiagorik
Zu gurekin egotea baiño.
- 41.— Antxiña batzarretan zeu ziñan zaindari,
gaurkuetan be, Ama, zaindu egizu Euzkadi.
- 42.— Agur Maria, bitarteko geuria,
jarri zaite gure alde ta zaindu gaizuz.
- 43.— Otoi dagitzu beti gure aberrijak,
entzun arren ba, Ama, bere eskarijak.
- 44.— Gu zaindu.

Goiko kalean.

- 45.— Ondarroak bere zaindariari, agur.
- 46.— Zuriak betiko izan nai dogu.
- 47.— Agur Ama.
- 48.— (Esaera barik)
- 49.— Udalak bere zaindariari. Agur.
- 50.— Agur Gotzain jaunari.

Santa Clara Kofradian.

- 51.— Asumta est Maria in coelum.

Zubi zarrean.

52.— Ama zaindu Ondarru ta gomutai zaitez Ama,
Ondarruko arrantzaleaz.

53.— Zubi barriko auzuak bere Ama kutunari.

Azkenengo iru tokiok kenduta, Ondarroan ibildeun edo prozesiñoiak egiten diran erara aitatu nai izan doguz kaletako erreskada eta illarak.

Orrelako jai batek ainbat bertso sortu zitun. Erri baten jairik ezin izaten dabe eurak goratu eta gogoratu eragiteko bidea billatu barik laga. Ama-lau bertsoatik lau aukeratuko doguz: J. Brontxe'nak dira.

3.— Aurtengo urtean nolako gauzak egin diran gure errian esan barikan ezin dezakez eduki batek barruan, deseos nago publikatzeko jakin dezaten munduan, Ama maitiak ipintzen ba dit memoriarik barruan.

8.— Andik urtenda jentia asi zan kaliak errekorritzen, emengo gauza ikusirikan guziok giñan arritzen, arkitetorik ez dute euki gauza nola egin agintzen, euren burutik egindako gauzak ederki ziran arkitzen.

5.- Erbestetikan ura pasatzen onera etorri diranak, ondarrutarrak diran bezela guziak egin dute lana, sayatu ziran gure errian ematiagaitik fama, azken orduan pagatuko ditu gure Antiguako Amak.

9.— Arratsaldian ataratu zan prozesioa kalera, egunka apaizak erbestekuak ta errikuak gañera, eta ainbeste estudiantek kantatzen zuten opera, ai zer ederki ematen zuten musikarekin batera.

Begoña eta Antigua'ko "aiztak" Ondarroa'n

Ondarroa' ko eleiz jaien istorian, 1.949 urteko Mayatzeko eleiz jaiak beti izango dira gogoragarri. Origaitik idatzita lagatea komeni da, beste alako jai bat ikustea gaitz izango dalako.

Urte orretan, 1.949 urtean, oraindik anai arteko gerraren ondorenak gure izatean, gure nortasunean eta gure familiatan gordin sentiduten genduzala, anaitasun eta alkartasun egun batzuk artu genduzan.

Urte orretan Begoña'ko Amaren irudia, imagiña, Bizkai guztian erabili zan, erriz-erri eta auzoz-auzo.

Mayatzaren 9 eguna izentatu zan Ondarroa' ra ekarteko.

Antxoa sasoi.

Gure errian, antxoa sasoi, urteko sasoirik lantsuena izaten da. Gizonak itxasoetan, emakumeak legorrean, mollaetan sare eta treñak konpon-tzen, edo saretan kateatuta ekartzen zan antxoa "despixkatzen", edo fabri-ketan buruak kentzen. Umerik txikienak be, il orretan, lan egiten eben sasoi aretan, eskoletara joan barik.

Ala ta be erri osua gertu zan arrerarik biozkorrena egitera.

Erri guztia jantzi zan. Arku eta apaindurak nun nai ikusten ziran. Bas-terrik ez zan geratu dotoretu barik, garbitu barik. Era bateko nai besteko iru-diak, gabetik goizera sortutako lorategiak, etxeetako izara ta apaindurak, ka-lien bastereta kantoř garbitzeak .. . inguru guztiak arrituta laga ziran. Eta ar-kuak.

1.931 urtean, 53 jaso ziran. Oraingotan geiago. Kale bat bakarrik ez zan gelditu bere nortasuna erakutsi barik, ertz bat bakarrik ez zan geratu bere gertakizuna egin eta bere eskintza ggeratu barik.

Bestetan egiten ez diran tokietatik zear egiteko ziran ibillaldiak. Egin bear, baster guztiak, kantoř guztiak sentidu nai ebelako erriaren zoriona. Ori-gaitik zabalago agertu zan erria. Andiago.

Antigua' ko Amaren irudia ekarri zan aurrez errira, bere ermitatik. "Aiztak" deitzen dautse Ondarroa'n Begoña eta Antigua'ko Amaren irudiei. Eta aizta biak Ondarroa' n batzeko ziran, euren bizitzan eta istorian sekula gertatu ez ziran ikustaldian.

73 arku dotore, txukun, ederrak, danak eskuz egiñak, goratu ziran al ziran tokietan. Orma guztiak sarek estaldu ziran, orretarako bodegetan, etxie-tan, ganbaretan eta dendetan egozan sareak batu ta zabalduz. Lorak, ostroak, adarrak nun-nai. Edozein baster baratz zoragarri biurtu zan, loradi. Ume ta gazterik geienak jantzi ziran, sinismenak erakutsi eta maitatu eragin dituzan irudiak bizi eragiten.

Ara jaso ziran arkoak zelako irakurgai eta esaera ta eskabide eukezan.

Kale andian. (Garramiola), Likona torre ondotik asita.

- 1.— Gure erregiña. (Arku onen koroia arto alez egiña zan,.
- 2.— Agur Maria. (Arko au arto buruz egiña).
- 3.— Zaindu gure erria.
- 4.— Ama maitagarrija, Bizkayaren euzkija, Jaunaren Ama laztana. Agur. Arrantzalienen Ama, itxas gizonen argia, onetsi gure errija.
- 5.— Argi eiguzu bizitzan, ez utzi, Ama, eriotzan.
- 6.— Gure Ama laztana, zorion pozez etorri Kaleandira.
- 7.— Zeruko Ama, Izar argia, errukitu gugaz.
- 8.— Goratu Ama ondarrutarren sinismena.
Agur Ama.
- 9.— Larrituen poza. (Estañu paperezko bolatxoekaz egiña).
Gaxuen osasuna.
- 10.— M. (Egal baten, Lurdes'ko agerpidearen irudia)
- 11.— Ama.
- 12.— Errukitu gugaz. (Goiko kalera doazan eskilarretan, antxiñako "temploa")
- 13.— Begoña-Antigua, une nuestros corazones.
Arrantzalienen Ama, itxas latzetatik zaindu gagixuz.
- 14.— Regina pacis.

Goiko-kale alderuntz. (Agirre kalia).

- 15.— Zeuk bigunduten dozu itxas asarria.
Zeuri begira dago mariñel tristia.
- 16.— Mi'ranos con confianza y salva a tu pueblo.
- 17.— Zugaz bizi nai dogu maitez urturik, gure biotzean ondo gorderik.
Umiak, ez juañ iñora, ama laster dator da. (Pixape onduan)
(Pixape aurrean, "templete" bat, ur, egazti eta beste apaingarriz beteta.)
- 18.— O Virgen de la Antigua, al pasar poresta calle, bendícenos Madre mía.
(Ospital aurrean)
Madre mia de la Antigua, los hijos de este barrio te saludan.
- 19.— Estrella del mar. (Antigua'n)
Onetsi.

Ipar kalean (Velarde kalean)

20.- Ave Maria.

21.— Iparkaletarren biotzak zuretzat dituzu, Ama.

("Isasi" neko sagardautegia egon zan alboko eskilaretan,
(templete) bat. Ipar kalea amaitzean, Ama Birgiña'ri
barri ona emotearen irudi bizia.)

22.— Bendita tú eres entre todas las mujeres.

(Eskillaretan, aroztegia. Ama birgiña eta Jose arotzaren irudi biziak.)

23.— Begira zaiguzu Ama zerutik, iñoiz ere ez utzi gu zure eskutik.

Maite gorderik zaude gure biotzean, artu gaitzazuz Ama gero zeruetan.

24.— M. (Monjaen etxeko aurrean).

25.— 0 Amarik andiena, erregutu egizu gu pekatariokaitik.

Antigua'ko Amaren kalean.

26.— Ave María Purísima.

("Domingo Antonio" neko eskillarak, aingeru baltzez.
Iriondo' neko fabrika aurea, loradi biurtuta.)

27.— Ondarrutarrak Ama zaitugu.

28.— Itxas gizonen Ama, zaindu gaixuz.

Portu kalean.

29.— Bienvenida seas Madre.

30.— Madre, vuelve a nosotros esos tus ojos misericordiosos.

Ama biurtu egizuz gugana zure begi errukitsuok.

31.- Ave María

32.— Regina Pacis.

33.— Todas las generaciones te llamarán bienaventurada.

Gizadi guztiak zorioneko esango dautzue.

Primo de Rivera kalean.

34.— Alguztidunak gauza andiak egin zitun nigan.

El Todopoderoso hizo cosas grandes en mí.

35.— Nire animak gogoratzen du Jaungoikoa.

Mi alma engrandece al Señor.

- 36.— Agur Maria, su sera gure icharopen guztia.
Madre a tus pies rendidos la santa paz te pedimos.
- 37.— Goizeko izarra ez da ain ederra nola dan Ama zure sorrera.
Arrantzalien Ama, zaindu gure sinismena.
("Kresala" kafetexearen aurrean. Gorago, pelotatokiko
orman, pelotari jantzitako mutillak.)
- 38.— Izar eder zoragarria, zeru goian zera Maria.
Pasaré mi cielo haciendo bien en la tierra. Después de mi
muerte haré caer una lluvia de rosas.
- 40.— Arrantzalien zaindaria, gure Amatxo maitia.
Ongi etorria Ama laztana.
- 41.— Agur eta zaindu Ondarruko erriya.
Zure zain gagoz, Ama, besuak zabalik.

Nasa kalean (Mola).

- 42.— Begira eiguzu Ama zerutik. Ez gaizuz laga zure eskutik.
Zureak nai dogu izan munduan, zugaz biziteko gero zeruan.
- 43.— Agur Ama maitia, ezin det aldegin, emen bizi nai neuke betiko zurekin
Artu gagizuz Ama zure magalean, ortze izango dogu eztia lorean.
- 44.— Bendita Tu eres entre todas las mujeres.
El Señor es contigo.
- 45.— Agur izar eder Amatxo maitia.
Zureak betiko izan nai dogu.
- 46.— Sarri egiñagaitik itxasoak orru, zaindu egizu, Ama, zerutik Ondarru.
Sinismena, Itxaropena, Maitasuna.
- 47.— Estrella del Mar gu ía a nuestros pescadores.

Zubizarraren igurutan.

- 48.— Regina Pacis, ora pro nobis.
- 49.— El barrio de la Piedad saluda a la Madre de Dios.
- 50.— Agur Itxasoko Izar.
- 51.— Maitasunaren eredu zara Ama, erakutsi guri alkar maitatzen.
- 52.— Izar arrigarri zara Ama maitia, ez gara aspertzen Zuri begira.

Zubibarri ingurutan.

- 53.— Pakea.

54.— Nola Amarik onenak al izango gaitu utzi?

55.— Ama. Goien goiena.

Argi guri.

Erriberan. (J. Cruceño)

56, 57 eta 58. (Iru arku oneikzuri zuriak ziran, izarekin egiñak. Lekue'neko taberna aurretik orduko "alondika" bitartean)

Arategi kalean. (Matadero).

59.- M.

San Iñaxio kalean.

60.— Agur Maria, eskarrez betia, zaindu egizuz gure familiak.

Ama, orain gure artian bizi zaitetz eta gero zeure artera eruan gaizuz.

61.— Amarik maiteenari agurrik beroena.

Bienvenida seas nuestra excelsa Patrona.

62.— Regina Pacis.

63.— (Guardia Zibillak egiña, izen barik)

64.— Antiguako Ama, poza ta biguna, zure begi errukitsu oiek gugana itzuli itzazu.

Madre de Dios de Begoña, Vos que sois manantial inagotable, concedednos la paz.

65.— (Esaera barik)

66.— Bienvenida seas Madre de Begoña.

Ama Antiguakua, agur.

67.— Agur, Ama.

68.— Agur, pakearen Ama.

Onetsi gaixuz, Ama (Iturribarri)

69.— Ama begira zazu Ondarruaren zati oni. (Errenderiko auzuan)

70.- M. (Kale kutzean)

71.— Orain gure artean bizi zaitetz, ta gero zure artera eruan gaizuz.

Salve Estrella del Mar. (Antigua'ko eleiz aurrean.)

72.— Angelus.

73.- Gurutzetikan zaigu etorri argia, zeru baten antzera egiten argia.

Orrela ziran aintzazko arkuak.

Jai oneri buruz liburutxu bat agertu zan, "Begoña en Ondarroa" ize-nagaz. Azken egun oneri buruz, ni neuk auxe idatzi neban euskeraz:

Astelenez, egun andiena.

Goizeko bostetako eleiza nagusia zabalik egoan eta jentez beteta.

Amaiketan meza nagusia, erriko plazan, Begoña eta Antigua'ko Amaren irudiak aldarren zirala. Bikario jauna meza eskintzalle, ondarrutar abade gazte bik lagunduta.

Aldara oñean agintariak, abadeak, erriko batzareta elkartetako ordezkariak. Inguruetan, aingeruak eta erramulariak.

Erriko eta Saturrarango abadegaiak korretan, Refice' ren meza ederra abestuten. Plazan eta inguruetako etxietan, ainbeste gizon eta emakume, erri ta erbesteko.

Itzaldia txukun, sutsu ta egoki, Aita Lasa prantziskotarrak.

Eta dana argi eta garbi alderdi guztietatik entzuten, abots zabaltzalle edo altabozen bidez.

Ondarrutarrak arruak gara meza nagusi ospatsuak egiten, baiña au la-
korik gitxi.

Iru ibildeun edo prozesiño egin ziran egun onetan. Polita, errikoia, eguerdian. Ikusgarria, aintzagarria arratsaldian. Samurra, maitetsua, sinismen-tua gabeen.

Eguerdian, meza ondoren, plazatik asi eta Alameda, Molla kalietan zear, Zubizarretik gora "Aita Eternuari" agur egiten, gero Zubibarritik zear erriberan gora elizara igoteko.

Arratsaldian, erriko kale nausietatik zear, plazan amaitzeko, elizan sar-tu ezin alako jentetza bertan zalako.

Gabian kale tarterik tarte, gaixuak eta ibili eziñak ikusten.

Egun guztian, Begoña eta Antigua'ko irudiak gure erriko basterrak be-deinkatzen, erri osuaren omena artuagaz batera.

Aurre eguneko irudiak eta jasoerak gitxi ziralakoan, zenbat gauza barri kale ertzetan! Guztiak aitatu eziñez ara batsuk: Zubizarrian aingeru talde bat Aita betikuaren oñetan; gorago onoimen edo birtutien irudiak zeatz agertu-rik; Ondoren Lurdes' ko agerpena; beste aingeru talde bat "Aingeru batek Mariari" eguerdi eguerdian abestuten zán artean; Arantzazu'ko irudia; Sinis-men, Itxaropen eta Goimaitasunaren irudiak ainbat tokitan; Jesus 'en Terese-txu; arrantzale taldeak; Nazaret gustiz egoki ta ikusgarri; Amaren barri ona artzea; itxas onduan ontzi bat tira-bira eginda ta mutiltxoak, noiz ittoko ego-zala, aingeru bat eurak ataraten, "ez bildurtu, Ama dator da" iñotsen artean;

antxiñako euskal sukaldeak, gorulariak, gure bizikerako agerpenak . . .

Samurra ikusteko goizeko ibildeunian Antigua eta Begoña' ko Amak, Zubizarretik batek eta Zubibarritik bestiak alkarri egin eutsen agurra.

Aaztu eziñikoa arratsaldeko ibildeuna amaituta, Begoña' ko Amaren irudiagaz etorri zan Larruzea abadeak Amaren izenez Antigua' koari emon eutsan musua, jentia gartsu ta suktsu, negar malkotan, goraka, txaloka, zapi-txoak atarata agurka ebillan bitartean, ainbeste zapi zurien artean abadegaien beka gorriak nastauta ebiltzala.

Zenbat gauza eder, zenbat aipagarri ezin esan eta aitatu, labur egiteko premiñaz.

Benetan, May'atzaren bederatzigarren eguneko astelen au ez da errez aztuko gure errian."

Gure aldetik, bizi izan dogunaren testigantza bat lagatea bidezko ikusi izan dogu, nai eta gaur, gaurko aizeak, eleiz gauzetan, mendebaletik jo. Baiña ontzat artu edo ezetsi, Ondarroa' k erabili izan daben bidea ezin geinke eza-gutu barik utzi, eta Ondarroa zuzendu daben argirik be ezin lei bat-batean gaiztetsi. Giro batsuk aterpean egotea agintzen dabe eta besteak kalean jolas-tera, baiña aterpean nai kalean, argi baten premiña sentiduten danik ezin ukatu. Eta Ondarroa' k, bere bizitzan, Antigua' ko Amaren premiña igarri izan dau.

Fe y pasión.

la virgen de la antigua

Durante siglos Ondarroa ha tenido una característica muy acusada en su religiosidad y ésta centrada apasionadamente en su patrona, la Virgen de la Antigua.

Hay que remontar siglos para comprender esta devoción. Casi toda la historia ondarresa.

Cuando doña María Diaz de Haro, Señora de Vizcaya, fundó la villa, señalaba entre las concesiones: ". . . e más les dó la Igllesia de Ondarroa con su cementerio, e' los dos tercios de la diezma que sean de la Eglessia . . ."

Sin duda esta iglesia era la Antigua, nuestra primera parroquia.

El Padre Lizarralde, franciscano, en su "Andra Mari" dedicado a Vizcaya, resalta: "El aditamento de la Antigua, está justificada por la creencia que de su iglesia fué la primeramente edificada en toda la costa marítima y única durante largos siglos."

Sabido es que la creación de las villas traí'a consigo el amurallamiento de las mismas. Es quizá por esta que "la Iglesia de Santa Mari'a de la Antigua que se encuentra sobre la villa, se hallaba antiguamente fortificada". (Ibarra y Garmendia en "Torres de Vizcaya".)

La antigüedad, la situación, el entorno, la vida marinera local, nuestra mentalidad, todo, ha servido para crear en torno a la Antigua una devoción misteriosa y mítica y respetuosa e intimamente familiar a la vez.

Sabido es que la imagen de la Antigua ha tenido fama de andariega.

Dicen que un día los que fueron a la ermita encontraron vacío el lugar que ocupaba. Se alarmaron. Tocarón a rebato. El pueblo entero recorrió todos los lugares próximos temiendo que algún ladrón hubiera robado la imagen. Cuando al anochecer cansados y rendidos volvieron a la ermita, hallaron la imagen con los bordes de su falda mojada y salpicada de barro.

En nuestros tiempos hemos conocido a muchas personas que para el toque del alba, todavía hace pocos años a las cinco y media de la madrugada, se congregaban en su pórtico y nada más abrir la puerta se acercaban a la imagen, le miraban e incluso le increpaban: Ai ene! Donde has andado? Estás rendida de cansancio, Tienes unas ojeras que delatan tu inquieta noche, los pies mojados . . . Ay nuestros hombres! dPero es que también esta noche ha habido algun temporal que ha hecho precisa tu compañía con nuestros hombres?

iDice algo esta inquietud?

De vez en cuando, la imagen de la Virgen ha sido bajada a la Parroquia con motivo de algun acontecimiento muy especial de la villa. En tal caso el pueblo entero se ha volcado en su recibimiento y veneración por las calles de la villa.

Fue muy ostentosa una peregrinación de 1.904.

En 1.931, con motivo de obras en su ermita, Ondarroa le paseó triunfalmente por las calles. Nada menos que 53 arcos se levantaron a lo largo de nuestras vías, aparte de templetos, oratorios y otros motivos plásticos en nuestros más típicos rincones.

Otro acontecimiento histórico fue cuando la visita de la imagen de la Virgen de Begoña por los pueblos. Fue en Mayo de 1.949. En Ondarroa la piedad popular llama hermanas a las imágenes en sus advocaciones de Begoña y de Antigua. Pues bien, en este acontecimiento se levantaron 73 arcos.

En nuestro relato en euskera damos las inscripciones de todos ellos.

Recordemos lo que escribía "La Gaceta del Norte" de Bilbao en aquella fecha:"...en Ondarroa el entusiasmo adquirió caracteres imposibles de transcribir. El pueblo estaba totalmente engalanado, con alegorías simbólicas y recuerdos históricos de la villa, que es difícil de transcribir por su grandiosidad y variedad de los mismos... Fue algo indescriptible, particularmente el momento en que ante la multitud se encontraron las imágenes de la Virgen de la Antigua y la de Begoña... Por la solemnidad y brillantez que revistió la procesión, no hay calificativos con qué encomiar este acto religioso, resultando un espectáculo realmente sublime y desconocido en los anales de la historia ondarresa."

Así ha sido Ondarroa con la Antigua. Y aunque de lo que será Dios dirá, no podemos silenciar un capítulo de la historia ondarresa tan íntima y entrañable no solo para nuestros antepasados, sino para nosotros mismos.